

## Software-lokalizazioetan erabiltzeko hainbat irizpide

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

2011

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
1. ORTOGRAFIA MAILAKOAK .....	4
• MAIUSKULA / MINUSKULA .....	4
• PRODUKTUEN IZENAK .....	6
• EHUNEKOAK .....	6
• HARRIDURA-MARKAK .....	6
• MAILEGU LEXIKALIZATUAK .....	6
• HITZ ELKARTUAK .....	6
1. 'Eguzki-lore' motako hitz elkartuak .....	6
2. Bigarren osagaia sorta, puska, edo mota .....	7
3. Lehenengo osagaia sigla duten hitz elkartuak .....	7
4. Lehenengo osagaia hitz arrotza duten hitz elkartuak.....	7
5. Bigarren osagaia hitz arrotza duten hitz elkartuak .....	8
• SIGLEN DEKLINABIDEA .....	8
• HITZ ARROTZEN DEKLINABIDEA .....	8
2. GRAMATIKA MAILAKOAK .....	9
• ADITZOINA EDO PARTIZIPIOA .....	9
• NAHI ADITZAREN ERABILERA .....	9
• GEHITU ADITZAREN ERABILERA .....	10
• MUGAGABEA .....	11
• IZENONDOA ETA ADITZONDOA .....	11
• BARRA ETZANA .....	11
3. SINTAXI MAILAKOAK .....	12
• AGINDUAK .....	12
• ADIERAZPEN-PERPAUS LUZEAK .....	12
• ESALDIAREN HURRENKERA TRAKETSA .....	12
4. LEXIKO MAILAKOAK .....	13
• ONDORENGO/HONAKO HAU .....	13
• SINONIMIA .....	13
• HIZKUNTZEN AIPAMENA .....	17
• BIGARREN/BIGARRENGO .....	18
• ORDENA/ORDEN .....	18
• ERABILERRAZA/ERABILERREZA .....	18
• ISLATU/ISPILATU .....	18
• EZKER-EZKERREAN/EZKERRENEAN .....	18
• BEHEALDEAN/BEHEAN .....	18
• BEHEALDE/BEHE ALDE .....	18
5. SEMANTIKA MAILAKOAK .....	18
• EZBERDIN, DESBERDIN .....	18
• BERA/BERDINA: .....	19
ERANSKINA: .....	19

## **Sarrera**

Txosten honetan ageri diren irizpideak finkatzeko arrazoia honakoa izan da: orain arte berrikusitako lokalizazio-lan batzuetan antzeman ditugun hizkuntza mailako akatsak, egitura traketsak eta lexiko mailako aniztasuna saihestea, horrela, erabiltzaileek ordenagailuak euskaraz ere erraz eta eroso erabil ditzaten. Lerro hauetan jaso ditugunak ez dira inola ere arauak eta beraz, ez dakarte bestelako erabileren edo itzulpenen debekurik; lokalizazio-lanak bateratze aldera adostutako irizpideak dira. Bost bloke nagusitan banatu ditugu irizpide hauek: 1. Ortografia mailakoak; 2. Gramatika mailakoak (deklinabidea, aditza...); 3. Sintaxi mailakoak (esaldiko elementuen hurrenkera); 4. Terminologia edo lexiko mailakoak (sinonimia...); 5. Semantika mailakoak.

# 1. Ortografia mailakoak

- **Maiuskula / Minuskula**

- Ordinala adierazteko erabiltzen den puntuaren ostean azaltzen den hitzak minuskulaz hasi behar du.

Adibidez:

- *1. eta 2. ataletan biltzen diren hitzak. (EZ: 1. eta 2. Ataletan biltzen diren hitzak).*

(hau aski ezaguna da, baina maiuskulak modu automatikoan agertzen dira maiz, beraz, zaindu beharreko kontua da).

- Puntu biren (:) ostean azaltzen den hitzak minuskulaz hasi behar du.

Adibidez:

- *FTP konexio-arazoa: zure babeskopia-fitxategia. (EZ: FTP konexio-arazoa: Zure babeskopia-fitxategia)*

Salbuespen izango da bi puntuen ondoren esaldi osoko aipamena edo esaldi osoak jasotzen dituzten zerrendak datozenean, baita paragrafo berria hasten denean ere.

- Uharteen izenetan izen generikoak minuskulaz hasi behar du.

Adibidez:

- *Bouvet uhartea, Kaiman uharteak. (EZ: Birjina Uharteak)*

- Teklen eta gezien izenak: bigarren osagaia (*tekla, gezia*) idatzita, lehenengo osagaia maiuskulaz hasita eta bigarrena minuskulaz, eta tartean marratxorik gabe.

Adibidez:

- *Erabili Ezabatu tekla karaktere konposatu osoa ezabatzeko. (EZ: erabili Ezabatu karaktere konposatu osoa ezabatzeko)*
- *Erabili Atzera tekla aurreko karaktere konposatuaren azken zatia ezabatzeko. (EZ: atzera-tekla)*
- *Gora gezia (EZ: gora gezia)*
- *Behera gezia (EZ: behera gezia)*
- *Ezkerreko gezia (EZ: ezkerretara gezia)*

- *Eskuinera gezia (EZ: eskuin-gezia)*

*Oharra:* kasu batzuetan gerta daiteke teklaren izena esaldi hasieran joatea eta nahasgarri gertatzea; adibidez, kasu honetan: *Ezabatu tekla desaktibatuta dago*. Lehen begiratuan, agindu bat dugula uler daiteke (Ezabatu tekla...). Halakoak saihesteko, teklaren izena komatxo bakunen artean jar liteke.

- Ikono eta botoien izenak: bigarren osagaia (ikonoa, botoia) idatzita, lehenengo osagaia saguarekin gezia botoira edo ikonora hurbilduta ageri zaigun gisara eta marratxorik gabe.


Adibidez:

- *Lodia botoia (EZ: lodi botoia)*
- *Etzana botoia (EZ: etzana botoia)*
- *Azpimarratua botoia (EZ: azpimarratu-botoia)*
- *Abisua ikonoa (EZ: abisu-ikonoa)*
- *Gorde botoia*

Bi hitz edo gehiagoz osatutakoetan, komatxo bakunak erabili beharko dira.

Adibidez:

- *'Dokumentu huts berria' botoia*



Ikonoen kasuan, ikono zehatz bat baino ikono mota aipatu nahi bada, bi osagaiak marratxoz lotuko ditugu.

Adibidez:

- *Pantailan abisu-ikono bat agertuko zaizu*

- Menu-barrako elementuak menu-barran ageri diren moduan aipatuko ditugu.


Adibidez:

- *Erabili Inprimatu*
- *Erabili Itsatsi*

Bi hitz edo gehiagoz osatutakoekin, komatxo bakunak erabili beharko dira.

Adibidez:

- Hautatu 'Gorde honela' menu-barratik
- Egin klik menu-barrako 'Inprimatzeko aurrebista' aukeran.



- **Produktuen izenak**

Microsoft, Windows, Office, Explorer, Java... eta gisako produktu-izenak marratxoak erabiliz deklinatuko ditugu.

- **Ehunekoak**

Zuriunea utziko dugu ehunekoaren sinboloaren eta zenbakiaren artean. Halaxe gomendatzen da Hezkuntza Sailak argitaratutako Ortotipografia liburuan.

- **Harridura-markak**

Jatorrizko testuan, maiz ageri da mezuetan harridura-marka, maizegi. Behar-beharrezkoa ez bada behintzat, ez dugu harridura-markarik erabiliko.

Adibidez:

- *(en) Apply Now!*
- *(eu) Aplikatu orain*

- **Mailegu lexikalizatuak**

Zenbait hitz arrotz gure hizkuntzaren lexikoan nahiko integratuta daude eta, beraz, lexikalizatutzat hartuko ditugu. Honakoak dira:

*Web* (Terminologia Batzordea, 2008-04-15), *hardware*, *software*, *firmware*, *antialias*, *script*, *buffer*, *zoom*, *braille*, *cache*, *proxy*, *token*, *bulet* (horrela idatzita) *plugin* eta *modem*.

- **Hitz elkartuak**

1. 'Eguzki-lore' motako hitz elkartuak: ahal dela, beti marraz lotuta.

Adibidez:

- *Kolore-nahasgailua*
- *Erabiltzaile-kudeaketa*

- *Kontrol-panela*
- *Izar-balorazioak*

2. Bigarren osagaia sorta, puska, edo mota tipokoa duten elkarteak: elkarte berezi horiek, oro har, bereiz erabiliko ditugu. Beraz, bigarren osagaia honakoa dutenak: *aldra, andana, bikote, ilara, kantitate, kopuru, mordo, multzo, oste, pare, pila, sail, sorta, tropel, joko; ale, apur, atal, atomo, ioi, izpi, molekula, pittin, pixka, poxi, puska, pusketa, tanta, zati, segmentu; era, fase, klase, modu, molde, mota.*

Adibidez:

- *Aurrebista modua (EZ: aurrebista-modua)*
- *Testu modua (EZ: testu-modua)*
- *Testu atala (EZ: testu-atala)*
- *Datu multzoa (EZ: datu-multzoa)*
- *Karaktere kopurua (EZ: karaktere-kopurua)*
- *Sarbide mota (EZ: sarbide-mota)*
- *Lerro segmentua (EZ: lerro-segmentua)*
- *Programa zatia (EZ: programa-zatia)*

Salbuespena: erdaretako *font* edo *fuentes*-ren pareko *letra-tipo* bere horretan (marratxoarekin) erabiliko dugu, erabilera hori oso finkatuta baitago.

3. Lehenengo osagaia sigla duten hitz elkartuak: marratxorik gabe behar lukete. Sigla hitz arrunt gisakoa (DVD, CD, PC...) bada ere hala erabiliko ditugu.

Adibidez:

- *PCC sistema*
- *ESD sistema*
- *ECMA elkarte*
- *DVD erreproduzigailua*
- *CD grabagailua*

4. Lehenengo osagaia hitz arrotza duten hitz elkartuak: marratxorik gabe idatziko ditugu, hitz arrotza gure hizkuntzaren lexikoan integratuta ez badago behintzat.

Adibidez:

- *PostScript fitxategiak ikusteko Ghostscript interfazea.*
- *GGV PostScript ikustailea (EZ: GGV PostScript-ikustailea)*
- *3Dko truchet ereduaren arabera betetako irudia sortzen du*
- *Software-eguneratzeen karpeta* (ondo legoke, lehenengo osagaia gure hizkuntzak bereganatua duelako).

- *Web-helbide, web-zerbitzari, web-editore, webgune* (lehenengo osagaia lexikalizatuta dago; azkeneko adibidea lotuta idatziko dugu hitz elkartuen osaera eta idazkerari buruzko Euskaltzaindiaren 25. arauari, II.3.e), jarraiki).

[http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0025.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0025.pdf)

[https://www6.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490/adjuntos/estilo\\_liburua/ortotipografia.pdf](https://www6.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf)

5. Bigarren osagaia hitz arrotza duten hitz elkartuak: aurreko puntukoak bezala emango ditugu, hots, marratxorik gabe. Kasu honetan gogoratu deklinabide-marka marratxo gehitu beharko diogula hitz arrotzari, behar badu.

Adibidez:

- *Iragazki daemon-a*

- **Siglen deklinabidea**

Deklinatzerakoan, izen berezizat hartzen da sigla, eta leku-izen bereziak bezala deklinatzen, izen arrunt gisako siglak izan ezik (*CD, DVD, PC, DM, DMA, URL...*). Bestalde, deklinabide-atzizkiak siglari lotuta (marrarik gabe) eta minuskulaz joan behar du.

Adibidez:

- *GNUk (EZ: GNU-k)*
- *CDak (EZ: CD-ak)*

- **Hitz arrotzen deklinabidea (programak, aplikazioak etab)**

Deklinabide-kasua eransteko marra erabiltzea komeni da, hitza neurri handi batean lexikalizatuta dagoenean salbu.

Adibidez:

- *Errendatzeko pixuf-a*
- *3D truchet-a*
- *Zip-ak deskonprimatu ondoren, (...)* (EZ: zipak)
- *Freeware-aren erabileraren arloa (...)* (EZ: freewarearen)

Salbuespenak (lexikalizatutzat jotzen ditugu, beraz, marrarik gabe deklinatuko ditugu):

- *Webarekin lotura handiago eskaintzen du.* (EZ: web-arekin)
- *Interneten integratua.* (EZ: Internet-en)



- *Kontrolatzaileak, sistema eragilearen eta hardwarearen arteko konexioa bideratzen du.*
- *Softwareak hainbat hizkuntzaren artean hautatzeko aukera ematen du.*
- *Erabili antialiasa.*

## 2. Gramatika mailakoak

- **Aditzoina edo partizipioa?**

(Ahaleran, subjuntiboan, eta aginteran)

Euskaltzaindiak ez du orain arte araurik eman horren gainean; beraz, bi aukerak dira zilegi: *sar naiteke* nahiz *sartu naiteke* (lehendabizikoa iparralde eta ekialdeko tradizioan erabilia; bigarrena mendebaldekoan). Bestalde, aditsoinek literatura-tradizioan erro sakonak dituzte.

### Orokorrean

Egia da Euskaltzaindiak arau bat eman duena aditzoinaren gainean (28 zk.) baina arau horrekin aditzoinaren forma baino ez du erabaki; hau da, aditzoina erabili nahi baldin badugu, zein forma izan behar duen horrek, ez besterik.

[http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0028.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0028.pdf)

### Software-lokalizazioetan

Aditzoina erabiltzea proposatzen dugu lokalizazio-lanetarako. Beraz, Euskaltzaindiak arestian aipatutako arauan aditzoinaren formaz esandakoa izan beharko dugu kontuan. Salbuespenak:

1. Aditzoina beste kategoria batetik baldin badator eta harekin nahas badaiteke aukeran uzten da zein erabili, kasu hauetan partizipioa erabiliko dugu. Adibidez:

- *Hobetu daiteke. (EZ: hobe daiteke)*

2. Bi aditz edo gehiago pilatzen direnean azkena soilik idatziko dugu aditzoin gisa (aditz-laguntzailearen eragin zuzena horrek jasaten duenez).

Adibidez:

- *Taulak zure hobespenen arabera tamainaz aldatu, egokitu eta antola ditzakezu.*

- **Nahi aditzaren erabilera**

Esaldian aditz-izena ageri bada aditz nagusiaren laguntzaileak ez du pluralean joaterik. Esanahiaren arabera, *nahi* aditzarekin noiz infinitiboa eta noiz aditz-izena erabili ongi begiratu beharko litzateke.

Adibidez:

- Hautatu **iragazi nahi dituzun** taulak/ Hautatu (sistemak) **iragaztea nahi duzun** taulak. (**EZ:** hautatu **iragaztea nahi dituzun** taulak)
- Diagramako ardatz horizontala eta bertikala **trukatu nahi badituzu**/ (Sistemak) diagramako ardatz horizontala eta bertikala **trukatzea nahi baduzu**. (**EZ:** diagramako ardatz horizontala eta bertikala **trukatzea nahi badituzu**)

- **Gehitu aditzaren erabilera**

Objektu bat beste bati gehitzen zaiola adierazteko datiboa, *NORI* edo *ZERI* gehitu, edo inesiboa, *NON* gehitu, erabiliko dugu. Kasu horietan ez dugu adlatiboa, *NORA* gehitu, erabiliko.

Adibidez:

- (...) goi-mailako domeinu blokeatuen **zerrendari** gehitzeko. (**EZ:** zerrendara)
- Gehitu irudiak **karpetan**. (**EZ:** karpetara)

- **Egiaztatu aditzaren erabilera**

Aginterako aditz honekin doan mendeko perpausa erabili konpletibo gisa, ez zehar-galdera gisa. Adibidez:

- *Egiaztatu eragiketa hasi **dela***. (**EZ:** den)

*Baiezta* eta *ziurtatu* ere zaku honetan sartzekoak dira.

Antzeko testuinguruetan agertzen diren beste aditz batzuekin, berriz, zehar-galdera erabiliko dugu. Adibidez:

- *Begiratu fitxategiak karpetan **dauden***.

- **Ordeztu aditzaren erabilera**

Hiruzpalau modutan ikusi izan ditugu "ordeztu"ren eraginpeko objektuak deklinaturik: asoziatiboan (-rekin) instrumentalean (-z, -ren bidez), kausalean (-gatik). Tradizioan hiru formak ageri diren arren, lokalizazio-lanetan lehenengo bi kasu gramatikaletan deklinatuko ditugu objektu horiek, hots ez ditugu kausalean (-gatik) emango.

- **Mugagabea**

Mugatu singularra edo mugatu plurala erabili beharko genuke testuinguru jakin batzuetan mugagabearen orde.

Adibidez:

- Izenak **formuletan** erabil daitezke, ulerterrazagoak izateko. (**EZ: formulatan**)
- Banandu Excel-eko gelaxka bateko edukiak bereizitako **zutabeetan**. (**EZ: zutabetan**) (are gutxiago "bereizitako"rekin)
- (...) beste zenbait karaktereren arabera **zutabeetan** zatituta. (**EZ: zutabetan**)
- Testua eta formulak **gelaxketan** sar ditzakezu. (**EZ: gelaxkatan**)

- **Izenondoa eta aditzondoa**

Hitz bakar bat ageri denean egoera bat adierazteko aditzondo gisa erabiltzea proposatzen dugu. Bi eratan ikusi dugu kontzeptu bera: izenondo gisa eta aditzondo gisa. Erabilera hauen irizpiderik eza dela eta, pantailetan txertatzerakoan, sarri, zerrenda batean egoera bat aditzondo gisa ageri da izendatua eta hurrengo izenondo gisa.

Adibidez:

- **Ikonotuta, desaktibatuta** (**EZ: ikonotua, desaktibatuta**)  
(zerrenda batean ageri zen)
- **Burututa** (**EZ: burutua**)
- **Aktibatuta** (**EZ: aktibatua**)
- **Aldatuta** (**EZ: aldatua**)

- **Barra etzana**

Bi aditzen artean barra etzana azaltzen denean, bi aditzek joan behar dute deklinatuta.

Adibidez:

*Bidaltzeko/jasotzeko. (**EZ: bidali/jasotzeko**)*

Batzuetan gerta daiteke interfazeetan nahikoa leku ez egotea. Halakoetan soilik utziko dugu lehen osagaia deklinatu gabe.

### 3. Sintaxi mailakoak:

- **Aginduak**

Mota honetako esaldietan aditza aurrera ekartzea komeni da, agindua argiagoa eta batez ere zuzenagoa izan dadin.

Adibidez:

- **Osatu** oinarria hainbat kolorerekin. (**EZ:** Oinarria hainbat kolorerekin **osatu**)
- **Osatu** bere kolorearen arabera. (**EZ:** Bere kolorearen arabera **osatu**)
- **Banatu** kartak lehenengo lekutik zortzigarrenera. (**EZ:** Kartak lehenengo lekutik zortzigarrenera **banatu**)

- **Adierazpen-perpau luzeak**

Hauetan ere aditza esaldiaren hasierara ekartzea komeni da, atzerakarga ekiditeko.

Adibidez:

- **Zurea da** dokumentuaren edo dokumentuaren bertsio aldatuaren kalitateari, zehaztasunari eta performantziari buruzko erantzukizun osoa. (**EZ:** Dokumentuaren edo dokumentuaren bertsio aldatuaren kalitateari, zehaztasunari eta performantziari buruzko erantzukizun osoa **zurea da**)

- **Esaldiaren hurrenkera traketsa**

Elementuren bat berariaz markatu nahi ez bada, edo eskuartean duguna arestian aipatutako kasuren bat ez bada, ez dago elementuen ohiko hurrenkera aldatu beharrik.

Adibidez:

- *Kalkulu-orri batean hainbat orri hautatzeko.* (**EZ:** Hainbat orri hautatzeko kalkulu-orri batean)
- *Hautapen batean orri bakarra hautatzeko.* (**EZ:** Orri bat bakarrik hautatzeko hautapen batean)
- *Gelaxka batean lerro-jauzi bat eskuz sartzeko.* (**EZ:** Lerro-jauzi bat eskuz sartzeko gelaxka batean)

Kasu honetan komunikazioa erraztea eta esaldiaren hurrenkera logikoari eustea da zuzenketaren oinarria.

## 4. Lexiko mailakoak:

- **Ondorengo/honako hau**

Ondotik datorrenari sarrera emateko erabili **honako hau**.

- **Sinonimia**

Horrelako testuetan, zehaztasunaren eta argitasunaren mesedetan, kontzeptu bat termino batez izendatzea komeniko litzateke. Hori bai, betiere, bi kontzeptuak hertsiki sinonimoak direnean egin beharko da aukera, hau da, inongo alde semantikorik ez denean bi kontzeptuen artean.

Hona hemen orain arte adostutako terminoak:

EN	ES	FR	EU	OHARRAK
add-in/add-on	adicional	accessoire	gehigarri	<b>ez:</b> osagarri
AL (Active Layer)	capa activa	calque actif	GA (geruza aktibo)	Itzuli egingo dugu.
alternate text alternative text alt text	texto alternativo	teste de remplacement	ordezko testu ord. testu	<b>ez:</b> testu alternatibo
applet	applet/ aplicacioncita	mini-application	miniaplikazio	Itzuli egingo dugu.
audio clip	clip de audio	clip audio	audioklip	<b>ez:</b> audio-klip;
audio file	archivo de audio	fichier audio	audio-fitxategi	<b>ez:</b> audiokliparen fitxategi
autotool	autotool	autotool	tresna automatiko	itzuli egingo dugu.
backend	motor	moteur, module	motor atzealdeko	<b>ez:</b> atzeko planoko modulu 'atzealdeko' erabiliko dugu izenondoa denean
baud rate	velocidad de transmisión (de baudios)	débit en bauds	baud-emari/emaria (baudetan)	<b>ez:</b> baud-abiadura
baseline	línea de base, trabajo previsto	planification initiale	aurreikusitako (plan) oinarri-lerro	<i>aurreikusitako (plan)</i> proiektuez ari garenean; gainerakoetan <i>oinarri-lerro</i> , besteak beste diseinuan.
bitrate	velocidad binaria	débit binaire	bit-emari/emaria (bitetan)	<b>ez:</b> bit-tasa, bit-abiadura
blanking	borrado	effacement	huste	(cd/dvd birgrabagarriez ari garenean) <b>ez:</b> ezabatu
breakdown shape	forma de desglose	forme de répartition	banantze-forma	
build	construir, compilar	compiler, générer, construire	eraiki	<b>ez:</b> sortu
builtin	integrado/a	fourni(e)	barneratu	<b>ez:</b> inkorporatu
CD writer	grabador de CD	graveur de CD	CD grabagailu	<b>ez:</b> CD idazgailu
center of rotation	centro de giro	centre de rotation	biratze-puntu	<b>ez:</b> errotazio-puntu
character set	juego de caracteres	jeu de caractères	karaktere joko	<b>ez:</b> karaktere multzo
class	klase	classe	klase	<b>ez:</b> mota

compress	comprimir	comprimer	konprimatu	<b>ez:</b> konprimitu
conditional branch	rama condicional	branche conditionelle	baldintza-adar	
custom dictionary	diccionario personalizado	dictionnaire personnalisé	hiztegi pertsonalizatu	<b>ez:</b> hiztegi pertsonal
custom icon	icono personalizado	icône personnalisée	ikono pertsonalizatu	
data form	formulario de datos	formulaire de données	datu-inprimaki	<b>ez:</b> datu-orri
data series	serie de datos	série de données	datu serie	<b>ez:</b> datu multzo
disc format	formatu del disco	format disque	diskoaren formatu	<b>ez:</b> disko-formatu
disc option	opción del disco	option disque	diskoaren aukera	<b>ez:</b> disko-aukera
distinguished name	nombre distintivo, nombre completo	nom unique, nom distinctif	izen bereizgarri	<b>ez:</b> izen bereizitu, izen oso, izen osatu, izen eskusibo...
To download	descargar	télécharger	deskargatu jaitsi	
drop line	línea caída	ligne verticale	lotura-marra	<b>ez:</b> elkartze-lerro
encoding element	elemento de codificación	élément de codage	kodeketa-elementu	<b>ez:</b> kodetze-elementu
encrypt/decrypt	encriptar, cifrar/desencriptar, descifrar	chiffre/déchiffrer	enkriptatu/desenkriptatu/ (zifratu/deszifratu)	Ikusi dugu hizkuntza guztietan bi formak erabiltzen direla; gu saiatuko gara proiektu bakoitzean bikote bakarra erabiltzen.
erase	borrar	supprimer	borratu	<b>ez:</b> ezabatu
event handler	controlador de eventos	gestionnaire d'événements	gertaera-kudeatzaile	<b>ez:</b> gertaera-kontrolatzaile
execute	ejecutar	exécuter	exekutatu	<b>ez:</b> egikaritu
farm	granja	batterie	zerbitzari talde	<b>ez:</b> talde
feed	alimentación	alimentation	jario	<b>ez:</b> iturri
fit	ajustar	ajuster	doitu	
flat list	lista plana	liste plate	zerrenda lau	
fontsize	tamaño del tipo de caracteres	taille d'une police de caractères	letra-tamaina	<b>ez:</b> letra-tipoaren tamaina
font style	estilo de fuente	style de police	letra-estilo	<b>ez:</b> letra-tipoaren estilo
freeze	congelar bloquear	geler figer	izoztu	
front-end	frontal	ordinateur frontal	interfaze	
failed to	falló, ha fallado	pas réussi	huts egin du	<b>ez:</b> ezin izan du
gadget	aparato	gadget	gailu	itzuli egingo dugu
HH:MM:SS	HH:MM:SS	HH:MM:SS	OO:MM:SS	(Ordu, minutu, segundo) ahal denean itzuli egingo dugu.
home directory	directorio de inicio, carpeta personal	répertoire principal, dossier personnel	karpeta nagusi	<b>ez:</b> etxeko direktorio
home page/ start page	página principal/página de inicio	page d'accueil/ page de démarrage	Ahal den neurrian bereizketa hau egingo dugu:  main page: orri	

			nagusi start page: hasierako orri home page: etxeke orri	
HSV (HueSaturationValue)	HSV	TSV (TeinteSaturationValeur)	ÑSB (ÑabarduraSaturazioBalio)	itzuli egingo dugu
ignore	omitir	ignorer	ez ikusi egin	<b>ez:</b> ezikusi egin
ink	entrada manuscrita	entrée manuscrite	esku-ohar	<b>ez:</b> tinta (testua eskuz idatzita egongo balitz bezala erakusten du)
interim marking	marca provisional	reperé intermédiaire	behin-behineko marka	
kernel	núcleo	noyau	nukleo	
keyboard shortcut	tecla aceleradora	abréviation- clavier raccourci- clavier	laster-tekla	<b>ez:</b> teklatuko lasterbide
kill	matar	tuer	hil	<b>ez:</b> amaitu  bereizi egingo ditugu, aplikazioa amaitzeko modu berezi bat baita 'kill'
language pack	paquete de idioma	module linguistique	hizkuntza-pakete	<b>ez:</b> hizkuntza-aukera
location	ubicación	emplacement	kokaleku	interneteko, direktorio bateko helbideak. dena dela, batzuetan 'posizio' zentzua duenean 'location' erabiltzen dute ingelesez. adib.: 'list of x and y locations'. kasu horietan, koordenatuez ari direz, 'posizio' itzuliko dugu.
log	registro	journal	egunkari	izena denean
log on log off logging	iniciar sesión cerrar sesión registrar	ouvrir session déconnecter journalisation	saioa hasi saioa amaitu erregistratu	
master slide	diapositiva patrón	diapositive de masque	diapositiba maisu	<b>ez:</b> diapositiba eredu
menu-path	ruta de acceso	chemin de menu	menuaren bide-izen	
mixed part	parte mezclada	partie mixte	zati nahasi	<b>ez:</b> zati misto
paste special	pegado especial	collage spécial	itsaste berezi	<b>ez:</b> itsatsi berezi
path/ path name	ruta de acceso	cheminement	bide-izen	biak berdin emango ditugu
(picture) switch	modificador (de) imagen	commutateur (de l'image)	kommutadore	<b>Ez:</b> irudi-kommutadore.
player	reproductor	lecteur	erreproduzizaile erreproduzigailu	softwarea (windows media player, vlc...) izendatzeko <b>erreproduzizaile</b> erabiliko dugu; hardwarea (gailua, aparatua) izendatzeko <b>erreproduzigailu</b> .
performance	rendimiento	performance	errendimendu	<b>ez:</b> performantzia
pinned	anclado	attaché	ainguratu	<b>ez:</b> iltzatu
unpinned	desanclado,	non attaché,	ainguratu gabeko/	<b>ez:</b> desiltzatu

	liberado	sans attente	aingura kendutako <i>Aditza:</i> aingura kendu	
pixelate	pixelar	pixeliser	pixelatu	
pixelize			pixelizatu	
popup window <sup>1</sup>	ventana emergente/ ventana popup	fenêtre contextuelle	leiho gainerakor	berez pantailaratzen den – sarritan propaganda– leihoa denean
popup window/popup menu <sup>2</sup>	menu desplegable	menu local	laster-leiho laster-menu	horietako “popup” izenondoa denean eta gure borondatez agertzen den leihoaz edo menuaz ari denean
to popup	emerger	popup	bistaratu erakutsi agerrarazi ireki	<i>popup</i> aditza denean, testuinguruan aproposen ikusten duguna erabiliko dugu
position	posición	position	posizio	pantaila bateko koordenatuak
preview	vista previa	aperçu	aurrebista	izena denean
to preview	mostrar vista previa	prévisualiser	aurrez ikusi aurrebista ikusi	aditza denean
to print	imprimir	imprimer	inprimatu erakutsi	batzuetan, ‘print’ek inprimatu beharrean kontsola batean erakusten du nahi duguna. kasu horietan <b>erakutsi</b> itzuliko dugu.
progress	progreso	progression	aurrerapen	<b>ez:</b> progresio
rating	clasificación	audience	balorazio puntuazio	esaterako jokoan kasuan, ‘rating’ hori zenbakizkoa dela baldin badakigu, <b>puntuazio</b> erabiliko dugu. zenbakiez ari den ziur ez dakigunetan, <b>balorazio</b> .
reading highlight	resaltado de lectura	lecture du surlignage/ surlignage de lecture	Irakurketa-nabarmentze	<b>ez:</b> nabarmendua irakurtzen (botoia da)
repeat delay	retraso de (la) repetición	délai avant répétition	errepikapenen arteko tarte	<b>ez:</b> errepika arteko tarte
RGB (RedGreenBlue)	RVA RojoVerdeAzul	RVB Rouge, Vert, Bleu	GBU (GorriBerdeUrdin)	itzuli egingo dugu
rotation	rotación	rotation	biratze	<b>ez:</b> errotatze
sample	muestra	exemple	lagin/adibide/eredu	<b>ez:</b> eredarako, mostra
selection	selección	sélection	hautapen	<b>ez:</b> hautespen
to shuffle	revolver	shuffle	ausaz erreproduzitu	<b>ez:</b> ausazko ordenan erreproduzitu
sibling	elementos del mismo nivel	frère	senide	
side bar	barra lateral	barre latérale	alboko barra	
side panel	panel lateral	panneau latéral	alboko panel	
syndication	distribución	syndication	sindikazio	aditza: <i>sindikatz</i>
slack	demora, margen de demora	marge	atzerapen-muga	<b>ez:</b> atzerapen-marjina, lasaiera
slide master	patrón de diapositivas	masque des diapositives	diapositiben maisu	
sort order	criterio de	ordre de tri	ordenatze	<b>ez:</b> ordenatzeko segida

<sup>1</sup> Ikus eranskinen adibide-pantailak

<sup>2</sup> Ikus eranskinen adibide-pantailak



	ordenación			
splash screen	pantalla de bienvenida	écran de démarrage	harrerako pantaila	<b>ez:</b> ongietorri-pantaila
STB (storyboard)	STB (storyboard/ guión gráfico)	STB scénarimage	gidoigr (gidoi grafiko)	itzuli egingo dugu.
stock	stock	catalogue	oinarri	itzuli egingo dugu.
tab	pestaña	onglet	fitxa	
tarball	paquete	paquet	pakete	itzuli egingo dugu.
title	título	titre	titulu izenburu	dokumentuen azalpen-izenaz ari garenean <b>titulu</b> erabiliko dugu. artelan, film, musika-obra eta abarren izenaz ari bagara, berriz, <b>izenburu</b> erabiliko dugu.
total/subtotal	total/subtotal	totale/sous-total	total/ subtotal	<b>ez:</b> guztizko
tracking	seguimiento	utilisation	segimendu	<b>ez:</b> jarraipen
unique identifier	identificador exclusivo	identificateur unique	identifikatzaile eskusibo	<b>ez:</b> identifikatzaile bakar
to upload	cargar	charger	kargatu/igo	<b>ez:</b> gora kargatu
VCR	videocasete	video cassette enregistreuse	bideo-grabagailu	itzulita emango dugu, baina 'cassette' ez dugu jasoko.
video clip	videoclip	clip vidéo	bideoklip	<b>ez:</b> bideo-klip
viewer	visionneuse	visor	ikustaile	<b>ez:</b> bistaratzaille
What-If Analysis	análisis de hipótesis	analyse de scénarios	'Zer-baldin' analisisa	itzuli egingo dugu
wrap <sup>3</sup>	ajustar	retour à la ligne	egokitu egokitu ertzean bilaketa jarraitua	<b>ez:</b> itzulbiratu excell-en, 'wrap text' eginez esaldiaren zati bat behera igarotzen denean guztia gelaxka batean sartu ahal izateko, <b>egokitu ertzean</b> erabiliko dugu, baita antzeko funtzioa betetzen duenean ere, esaterako testu editoreetan (ohar-blokak, mezu elektronikoak, .txt formatuak, web-orriak etab.). bilaketen testuinguruan ere ager dakiguke "wrap around" eta kasu horretan <b>bilaketa jarraitua</b> itzuliko dugu.
3-D	3D	3D	3D	<b>ez:</b> 3-D
to zoom in	acercar	zoom avant	handiagotu	<b>ez:</b> zoom egin
to zoom out	alejar	zoom arrière	txikiagotu	
zoom	zoom	zoom	zoom	aditza ez denean mailegua erabiliko dugu. (termino lexikalizatutzat dugu)

- **Hizkuntzen aipamena**

Hizkuntzen izenek Euskaltzaindiaren 38. arauaren arabera egon beharko dute idatzita. 38. araua: *Munduko estatu-izenak, herritarren*

<sup>3</sup> Ikus eranskineko adibide-pantailak

izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak; arau zuzendua eta eguneratua.

[http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0038.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0038.pdf)

Adibidez:

- *Thailandiera* edo *thaiera* (**EZ:** *thai*)

- **Bigarren/bigarrenago**  
**Bigarren** erabili beharko litzateke *bigarrenago* beharrean. (Begiratu Hiztegi Batua)
- **Ordena/orden**  
"a" itsatsia dauka, beraz, **ordena**.
- **Erabilerraza/erabilerreza**  
Erabili beti **erabilerraza**.
- **Islatu/ispilatu**  
"Reflejar"en pareko erabili **islatu**.
- **Ezker-ezkerrean/Ezkerrean**  
Erabili **ezker-ezkerrean**, **eskuin-eskuinean**, *ezkerrean* edo *eskuinean* beharrean.
- **Behealdean/behean**  
Zerbaiten *behean* baino erabili **behealdean**.

Adibidez:

- *elkarrizketa-koadroaren* **behealdean**.

- **Behealde/behe alde**  
Erabili beti **behealde**. (*Euskaltzaindia* 3. araua)  
[http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0003.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0003.pdf)

Adibidez:

- *Halaber, leihoaren* **behealdeko** egoera-barran.  
(**EZ:** *behe aldeko*)

## 5. Semantika mailakoak:

- **Ezberdin, desberdin**  
Benetan desberdina dela esan nahi dugun edo besterik gabe "batzuek, zenbaitez" ari garen gogoeta egin beharko genuke kasu hauetan.

Adibidez:

- *Datu-base berean edo zenbait datu baseren artean kopiatu dezakezu. (EZ: datu-base berean edo datu-base ezberdinen artean)*

- **Bera/berdina**

Esanahiaren arabera bata edo bestea, zuzen erabili beharko genituzke. Azalpena EGLU 1eko 149. orrian dator emana.

Adibidea:

- *datu-iturburu **berera** berriro konektatzean erabiltzaile-izen eta pasahitz **bera** erabiltzeko beste elkarrizketakoadrorik gabe. (EZ: **berdina**, **berdina**)*

- **Lehenengo pertsona**

Jatorrizko testuetan, ordenagailuak egiten dituen ekintzak sarri lehenengo pertsonan ematen dira. Guk horrelakoetan hirugarren pertsona erabiliko dugu.

Adibidea:

- *(en) This folder is not stored in configuration. I do not yet know how to remove it from remote server.*
- *(eu) Karpeta hori ez dago konfigurazioan gordeta. Oraindik ezin **da** jakin nola kendu urruneko zerbitzaritik. (EZ: ezin **dut** jakin)*

- **Bigarren pertsona**

Sarritan, jatorrizko mezuetan, erabiltzailea aipatzen da zuzenean, zerbaiten jabe modura. Guk ez dugu izenordain posesibo hori itzuliko, mezua luzatu besterik ez baitu egiten.


Adibidea:

- *(en) Your iPod could not be identified*
- *(eu) Ezin izan da iPoda identifikatu (EZ: ezin izan da **zure** iPoda identifikatu)*

## Eranskina

### 1. Egokitu (wrap)

Word-en, **Egokitu** aukeratuta testua irudiari egokituko zaio zenbait modutan:




Excell-en, **Egokitu ertzean** aukeratuta honakoa egingo du sistemak:

	A	B
1	Menuak	
2	Aukerak	
3	Menuetako aukerak	
4	Komandoak	
5	Aginduak	
6		
7		
8		
9		
10		
11		


Bestela, **Egokitu ertzean** aukeratu gabe, horrela agertuko litzateke:

	A	B
1	Menuak	
2	Aukerak	
3	Menuetako aukerak	
4	Komandoak	
5	Aginduak	
6		
7		


Testu editoreetan ere **Egokitu ertzean** erabiliko dugu. Aukera horrekin, honela bistaratuko zaigu testua:



**Egokitu ertzean** aukeratu gabe, berriz, honela ikusiko dugu:



## 2. Laster-leihoak/laster-menuak (popup window/popup menu)



## 3. Leiho gainerakorrak (popup window)

**Irudi-atazak**

- Ikusi diaporama gisa
- Eskatu argazkien kopiak Internet bidez
- Inprimatu hautatutako argazkiak

**Berretsi hainbat fitxategi ezabatzea**

Ziur zaude 5 elementu hauek ezabatu nahi dituzula?

Bai Ez

Tamaina	Mota	Aldatze
JPEG		04/05/20
JPEG		04/05/20
JPEG		04/05/20
JPEG		04/05/20
JPEG		04/05/20